

Nafarrak

MARIA CONCEPCIÓN EZPELETA-REN SEMEAK, Francisco Javier Girónek, Espainiako Guardia Zibila sortu zuen 1844an. Beraren aitona, Maria Concepción aita, José Manuel Ezpeleta Galdeano (Iruñea 1739-1823) izan zen, Kubako gobernadore (1785-1789), Nueva Granadako –egungo Kolonia– erregeorde (1789-1797), Kataluniako Kapitain Jeneral (1808) eta Nafarroako erregeorde (1814-1820). Kolonbian, besteak beste, botanika bidaldiak sustatu zituen. Tartean, José Celestino Mutisen espedizio sonatua (Pedro Ursua arizkundarrak 1549an han sortutako Pamplona hirian bizi izan zen Mutis).

__30 urte luzatu zen bidaldia, baina lurralde haien aberastasun ikaragarriaz jabetzeko bidea garbitu zuen. Landare eta animalia ugari izendatu zituzten. Lan horretan, landare genero berri bati *Espeletia* izena jarri zion Mutisek, bere mezenasaren oroigarri. Genero horren ahaide gisa, Cuatrecasas i Arumí botanikari giro-narrak, lehengo mendeetan, *Coespeletia* eta *Espeletiopsis* generoak izendatu zituen.

Ameriketako botanikan nabarmena da izen euskaldunen emana. *Espeletia*, *Coespeletia* eta *Espeletiopsis* horiez gain, hor daude lehendik ere aipatuak ditugun *Uribea*, *Aristeguieta*, *Echeverria* eta *Lardizabal* ere.

José Celestino Mutis (1732-1808), landare genero berri bati *Espeletia* izena jarri zion botanikaria.

Emana, ordea, ez da hor bukatzen... Txilen, adibidez, landare mordoxkak du euskal deituraren bat.

Larrea generoa, bost espezie biltzen dituena. Zientziak eta arteak bultzatu zituen Juan Antonio Hernandez de Larrea elizgizonaren omenez.

Lastarriaea, Txileren alde Jose Victorino Lastarria (1817-1889) diputatu iraultzaile eta idazleak egindako lana oroitarazteko.

Ercilla, bermeotarren seme Alonso Ertzilla Zuñiga poetaren omenez, Txileko historiako poema epiko handienatzat duten *La Araucana* idatzi zuelako.

Luzuriagaceae familia eta *Luzuriaga* generoa, Areatzako Ignacio M. Ruiz de Luzuriaga (1763-1822) doktore kirurgialari eta botanikazalearen goresle.

Silvestre Ochagavia Errazuriz (1820-1883), Justizia, Kultura eta Instrukzio Publiko ministroa



R. CRISTÓBAL

izandakoaren gorazarrezko *Ochagavia* generoa.

Urmenetea generoak gogorak dakar José Tomás Urmeneta Garcia (1808-1878) filantropoa. Rodolfo Amandus Philippi botanikariak jarri zion izena; bera zuzendari zen museoari dohaintza handi bat egin zion, eta ordainetan nonbait. ■



37

Udazkeneko egun motzenak gainean ditugu eta hasi hurrengo uda berriari tamaina hartzen. Zer landatu, zer erein... Hartu pentsatzeko denbora. Hona proposamen bat: Bettina arrosa. Lehengo mendeetan Frantziako Francis Meillandek sortua da. Badu aldaera igokaria ere. Loreak laranja-gorritzak dira, usain izugarria dutenak. Bakoitzak 37 petalo ditu. Bazterrak miatu eta ahal baduzu eskuratu. ■

